

EUSKAL LIBURU SÖRTA

ERARENZAKO YAKINGAI BEARENENKÖAK



IPUIN LABURAK

GARITAGNANDIA 'TAR BITOR' EK EGINAK

A.T.V.
1186



IPUIN LABURAK UMETXOENTZAT

THE LARVAE OF THE MOSQUITO

Π - 4793
R - 1125

A.T.V.
1126



IPUIN LABURAK UMETXOENTZAT

(EUSKALTZAINDIA'REN
IDAZTI BATZALDIRAKO)

IKURITZA:
"MENDU EUSKERAZ UMEAK"



1922
EDITORIAL VASCA
BILBAO

IPM LARBAK
UMETXOENTAT

INDONESIA (1960)
(1961-1962)

BEAR DAN BIAZ

"MENDU BUKAN BUKAN"



INDONESIA
1960-1962



I

PEREA

PERU ta Patxi, aita-semeak, Donosti aldera zijoazen. Peruk edauzki (peña) bat ikusi zuen bidean, ta esan zion semeari:

—Patxi; aitu zak edauzki (peña) ori ta gorde sakelian.

—¡A ze gauza! ¿Txatar ori gordetzeagatik makuitu? Ez—. Ta jaramonik egin gabe jaraitu zion bideari Patxik.

Aitak, ezer erantzun gabe ta ixil-ixilik makuiturik aitu ta gorde zuen edauzkia.

Lenengo eldu ziran erian izan zuen edauzkia saltzeko zoria, ta eman zioten diru-ordañez, gereziak erosi zituen.

Tapa-tapa ba-zijoazen auffera. Eguerdi aldia
zan, ta eguzkiak gogorixo joten zuen.

—¡Ez ote degu arkituko iturritxoren bat! —
esanaz, estu zijoan Patxi izerdi-tantaka, aoa
legoñturik.

Onelako-batean Peru'ri erori zitzaion sake-
letik (bere naiz) geresi ale bat. Patxik arñu zuen
beriala, baita aora sartu ere gogoz. Geroxiago
bota zuen aítak beste bat; semiak arñu ta jan.
Órela, batak bota ta bestiak arñu, jañaitu zioten
gereziak aítu arñe.

Azkenengoa jan ondoren, aítak esan zion
semeari:—Bein makuñtu ba-intzan edauzkia ja-
sotzeko, ez ukan eun aldiz makuñtu bearik gere-
ziak arñzeko.

Neke txikia eraman nai ez duenak
Ondoren ditu neke aundi ta lanak.



II

ANAI ONAK

JOAN ziran egun baten Tolosa'ko txapelolara baseñitar anai bi, ta galdetu zioten olajauna'ri:

—Jauna: ¿ba-aldezu lanik guretzar?

—Zenbat eta nolakoa dan.

—Gu geñtu gaude nai dezun eratara il guzian gogor ekiteko, janaz gañera ogei ogeñleko ematen ba-dizkiguzu.

—¿Ogei? ¿Ez al-dek askotxo izango?

—Ez jauna. Guzia-beñian arkitzen gera; ta zuk nai ez ba-dezu beste batetana jo beañko degu.

—¿Ain beañ-beañekoak al-dituzute diru oyek?

—Ara jauna. Amalau urteko anai bat degu etxean, ta nai genduke langintza bat erakustea. Aitak itz-egin zion burdigile on bati, ta geñtu dago erakusteko, bañan ogei ogeñleko eskatzen ditu aurrez. Ez genduan dirurik etxean, ta il

ontan baseñ-aldean lan gutxitxoago izaten dan ezkerro, zugana jo degu dirutza ori irabasteko ustez.

—Ba, anai-maitasun egizkoa erakutsi dezu-telako, izango dezute il-azkenian diru ori, gogoz lan egiten ba-dezute.

Sañu ziran bada olara, ta ekin zioten lanari; igogor ta kementsu ekin erel Lenengoak lante-gira joaten, ta azkenengoak ateratzen.

Il̃a bete igaro ondoren olajaunak bere lange-la'ra sañ-araziaz onela esan zien:


—Ora or legez ta bidez irabazi dituzuten ogei ogeñlekoak. Tori beste ogei zuen zintzo-tasun ta anai-maitasun ordaiñez.

Lagundu maitasunez

Anai txikiari

Ta izango dezu Jauna

Betiko zaindari.



III

ALKAËRTASUN AUNDIKO AIZPAK

SENDI gabeko andere aberats batek aitu zuen alabatza umezurtz txiro bat. Sotil ta mena, alaitsu ta maitekofa, zintzotasun ta elizkoitasun aundikoa zan ume ori.

Esan zion egun baten bere andere urgazleak (1):

—Iziartxo: sotil ta ona zeralako soñeko beñi ta apain bat izango dezu eguberietarako. Tori dirua, ta zuaz *Legezañ-zei'ko* bitxitegi'ra: antxen emango dizute zure gogozko oztin (2) miesa (3).

Eman zion bada ogerleko pilo bat soñeko-miesa erosteko. Bañan Iziartxo'k, diruari begiraka egon ondoren, esan zion:

(1) Uřgazlea = Protectora.

(2) Oztin = Azul celeste.

(3) Miesa = Tela.

—Nere amatxo maitea: nik lendik ere baditut soñeko apain ta ederak; nere aizpa beriz lander ta kupigari jazten da: beraz, nik orain beste soñeko berri bat egitea izan liteke beretzat ta-malgari. ¿Utziko dirazu bada erdiya berari ematen? Asko lagundu ziran berak ere, dakizun bezela, nere gaxo-aldian, ta beartua nago bere niganako maitasunari erantzutera.

—¡Nere alabatxo maitea! — erantzun zion andereak —. Datorrela onara zure aizpa. Biyok soñeko bana egitea nai det. Orela, ongina ta maitasunez berdin ageitzen zeraten aizpa biyok, soñekoz ere berdin jantziak arkituko zerate.

Elkafganako maitasunak
Zoriontzen ditu amayak.



IV

ARTZAI ZORITSUA

ARTZAI-MUTIL gazte bat, udaberriko goiz ditziko¹ baten, mendibizkar orlegi (berde) ta loreetsuan bere arditxoak zainduaz, alaiki ta gozaro arkitzen zan. Une-oroko abesti ta soñujoteaz erakusten zuen bere bañengo atsegin ugarija.

Alakoren-batean uferatu zitzayon an inguruan eizatzen zebilen lateri jaularia (1), ta onginaiz onela itz-egin zion:

—Alaitsu arkitzen zaitut, gazte.

Artzaiak, nori itz-egiten zion jakin gabe, erantzun zion:

(1) Lateri-jaularia=Enperedorea.

—Bai, ¿ta nola ez? Gure jauralaria bera ere ez da ni baño aberatsagoa.

—¿Benetan?—zion añiturik jaurlariak—Jakin bea' det non dituzun aberaski oyek.

—Bai, bai. Ara;—jañaitu zion artzaiak—ortze urdin ortan agertzen zaigun eguzki ditzikora'k jauñlari jaunarentzat bezin a'gi bialtzen du nereztat ere. Mendi ta zelai, iba' ta soroak, bakoiztasun gabe ematen dizkigute urin ta usai goxozko ostail ta loreak. Nere esku ta besoak ez nituzke emango be'reun mila lauñleko'gatik, ta nere begiak erosteko ez dira aski jauñlariaren aberaski guziak. Nai detan aña jaten det, edan ere bai; zer jantzi ba'det, eta urtero lansaritzat ematen didate bea' detan aña diru. Gañera, Jaungoikoaren adizkide naiz. ¿Ez al-naiz bada jauralaria bezin aberatsa?

Jaurlariak, iri-pa'rez artzaiari begiratuaz, ta no' zan jakin-arazi ondoren, onela erantzun zion:

—Bai, artzai zoritsua: izpidean ago (1). Ire jauñlariak ere oñela uste dik. Iraun dezaikela urte askotan zorionezko alaitasun oñek.

Bafengo alaitasunez
Bizi dan otseña
Jauñlari jauna baño
Aberatsagoa da.

(1) Izpidean ago=ñenes razón.



V

SEME ONA

SALEROSTETXE (1) aundi bateko sarigari (2) arkitzen zan Andoni. Bere aitak ere etxe artatik ateratzen zuen bizibidea, aufkezle (3) bidaztuaz (4).

Alako egunean aitak nagusiaren aginduz itxasostera joan beara izan zuen. Itxasontziratu ta laister jakin zan ontzi aura itxaslapur batzuek arapatu zutela; ta inguru guzietan galdekuntzak egin aŕen, etzetoŕen inondik ere Andoni'ren aitatzaŕko izparik.

Andonik bete zuen beriala sarigaritza, ta nagusiak, bere zintzotasuna ikusiaz, eman zion

(1) Salerostetxe=Casa de comercio.

(2) Sarigari=Meritorio.

(3) Aufkezle=Representante.

(4) Bidaztu=Vinjar.

bere aitak zuen irabazpidea. Arteziz ta zindoro jaraituaz laister aurrez zuen diru puska bat.

Alakoren batean, jakin zuen Turkian arkitzen zala bere aita moamar baten jopu-moroi, ta erabaki zuen nolabait joputasun (1) artatik azkatztea. Oretarako diru askotxo bear zuen, ta lendik aurreztutakoak geitutzeko zaldu zituen janzki ta beste domu'dun (2) gauzaki guziak bear-bearekoak ez baizik. Bidaldisaria (3) ere aurreztutzearen saitu zan otseintzat eguterantz (4) zijoan itsasontzi baten; ta eldu zan Turki'ra.

Aitaren beri jakin ondoren joan zan menpeko zeukan maomar aberatsagana, ta eskatu zion gogoz ta biotzez bere aitaren azkatasuna diru-ordanez.

Baïan maomarak Andonik zeukan baño askozaz diru geyago eskatu zuen.

Andoni biozkatu zan; ta aita'ren azkatasuna diruz erosi ezin zuen ezkerroz esan zion maomari:

—Jauna: Azkatu zazu aïen, nere aita, ta bere ordezt ni geldituko naiz zure jopu. Berak bezin ondo gomenduko (5) zaitut.

Maomarak agindu zuen deitzeko beriala aïotz (6) jopuari. Alkar ikustiaz batean besarkatu ziran aita-semeak, eta tankera oïtan, begiak

(1) Joputasun=Esclavitud.

(2) Domu=valor.

(3) Bidaldisari=Gastos de viaje.

(4) Egutera=Oriente.

(5) Gomendu=servir.

(6) Aïotz=Extranjero.

malkoz beterik, itz-egiteko adorerik gabe, arkitzen ziran biyak.

Jakin zuenian aitak Andoni eskeindu zala bere ordeztu gelditzeko, biotz-ikaraz ta saminki malkoak ixuriaz onela zion:

—¡Ez seme, ez! Geyegi dekl ori: ¡Nere bizitza laburra izango dekl!

—¡O nere ataxo maitea!—erantzun zion Andonik—Ez dakigu zeñen bizitza izango dan laburragoa; ta gertu nago, ez bakarrik zure joputasuna neregain eroratego, baita nere bizia emateko ere. Tori zu erosteko ustez ekañi ditudan diruak. Oyekin ordaindu dezakezu arantzko beldia, ta... Jaungoikuak onetsi zaitzala. Ni emen geldituko naiz.

Itz auek entzuteaz biotz-ukitu zan maomara, ta esan zion Andoniri:

—Gazte: Seme bikain ta zintzoa aiz. Beraz, ordainketa gabe azkaturik gelditzen dekl ire aita. Gañera, nik ematen diat salerostetxe bat jartzeko bea dekan aña diru. Jaungoikoaren aginduari jaraituaz aitaganako maitasun osoa agertu deklako.

Azten badituk seme-alabak gizapidez
Igaroko dekl zaitzaroa atsegiñez.



VI

MALTZUÑA ⁽¹⁾

Pelo zeritzaion mutil gazte itsu bat uriko Elei-
zan mesa entzun ondoren bazijoan bere auzo-
aldera makila bat lagun zuela. Bidean Praixku'kin
bat-egin zuen, ta, beti bezela, tenk-egin (2) zuten.
Praixku guztizko maltzuña zan, ta iri ta pare egin
naian esan zion itsuari:

—Pelo: lasterketa bat egin bea' diagu. Nai
dekan beste jokatu'ko diat zeñek bizko'ago egin.

—Non ta noiz dan - erantzun zion itxuak.

—Ona emen amaseiko bat non-nai ta noiz
nai jokatze'ko.

—Badijoa. Ona emen neria ere — erantzun
zion itxuak: Ta inguruan zeuden iru gizon ziñal-

(1) Maltzuña=El malicioso.

(2) Tenk=Alto!

dari jañi ondoren jañaitu zuen esanaz:—Jaunak: leku ontatatik uriko eleiz-atariraño izango da lasterketa; ta abiatuko gera gauñ-gabeko amabi-amabitan. Beraz, eleiz - atarira lenengo irixten danak jasoko ditu amaseiko biyak

Eldu ziran gauerdiko amabiak, eta, temaarauz, abiatu ziran biyak batean.

Etzan agiri ilargirik ta gau ilun-iluna gertatu zan. Itsuari argi nai ilun berdin zitzaion, ta oitutako bideari tapa-tapa jañaituaz iritxi zan eleiz-atarira eguna zabaldu baño len. Praixku beriz abiatu ta berealaxe bidez galdurik, jo ofera ta onera, bai lañapastaka ta bai zilipurdika, batean zugatz-enboña (1) jo, bestean arantz-arñtera sañtu, non añkitzen zan ere etzekiala zabaldu zitzaion eguna: ta, jakiña, itxua bañon askozaz geruago iritxi zan eleiz-atarira.

Jaso zituan bada itsuak legez ta bidez irabazitako amaseiko biyak: ta Praixku, sakela murñsturik, auzokide guziak iñi ta pañez atzetik zituala, apal-apal ta ixil-ixilik etxeratu zan.

Oña of bere maltzurkeriak eman zion sariya.

Landeñeri ta efmainduntzaz (2)

Ez iñoiz isekatu

Goiko-Jauna'ren zigofa

Añtu nai-ez ba'dezu.

(1) Enbor=Tronco.

(2) Efmain=Defecto físico.



VII

INTXAURA

INTXAURDI eder bateko itzalian jolastutzen ari ziran mutil-koxkor bik arkitu zuten intxaur bat.

—Nerea dek — zion Iñakik — Nik ikusi diat lenbiki.

—Ez, — erantzun zion Txomiñek — neretzat izango dek neroenek arapatu detalako.

Beriala softu zan biyen artean inkimako (1) izugarri bat. Lenbizi itz-goraz, gero aseréz ta azkenez buruka.

Onetan ari zirala eldu zan beste mutil indar-

(1) Inkimako=Querella.

tsuago bat, ta burukari biyen artean onela itz egin zuen.

—Tira adizkideak, geldi! Nik erabakiko dizu-
tet auzi ori—Eta intxaufa erdibituaz jaraitu zuen:
—Oskol-erdi (1) au lenbizi intxaufa ikusi due-
nentzat; eta beste erdia lenbizi arapatu duenen-
tzat. Mamia neri egikiten zait epai-saritzat.

Au izaten da auzi guzien amaya:
Malmuzkeri asko ta onura gutxi.

(1) Oskol=Cáscara.



VIII

AÑOSAK

BASETXEAN bizi zan lugin etxagun batek, landatu zuen bere baratzako lilitagian ańosa-ondo-zko bat.

Ikusi zuen uręngo egunean bere alaba Margari'k eta esan zion aitari:

—¿Zer jańi dezu or? ¡Ain lilitegi polit eta ederian sartu abetxo (1) zakań orit! Oso gaizki ematen du arantz ońek lorontzi egoki orńan.

—Itxoin, ume, itxoin — erantzun aitak. — Arantz legońa iruditzen zaitzun landara ońek emango ditu garaiz baratz guzia bitxituko duten lore lirain ta guri-guriak.

Margarik burua igituaz erakusten zuen bere zińeskaiztasuna.

Bańan etzuan izan luzaro itxoin beańik zińes-tutzeko. Laister agetu zizkaion abetxo arantza-

(1) Abetxo=Arbusto.

dunari motetxoak, ta poliki-poliki ostatuaz jantzi zan margo ori-urdin edere. Ondoren, sortu zizkaion pinpirin (1) txiki ta politak, ta lilipa, akara ta beste lore-belañen ostoak zimeldu ta legoñtzen ai ziranean zabaldu ziran arosa-pinpirinak eta arantza baño besterik etzeukan landaratroxoa aurre bete zan lore liran ta edere, baratz guzia apaindu ta bitxituaz.

Margari añiturik arkitzen zan arosaren zurigorizko margo diztikora ikusiaz ta bere usai goxoa sumatuaz. Uneoro joaten zan lore beñaren urina gozartzera, ta onela zion:

—¡Au bai dala lore polita! Ez det inoiz ikusi politagorik, ez-ta baratz-apaingai edetagorik ere. ¡Nor esango zuen!

—¿Sinisten dezu orain?—erantzun zion aitak.—Ikusi dezu nola arantzatik etorri liteken arosa edera. Bere epea igaro arte itxoin beña izan dezu, bañan orain pozik arkitzen zera.

Oñela dira Jaungoikuak bere maitasunez biltzen dizkigun nekeak ere. Abetxo arantzadunak udaberri ondoren arosa edetarik ematen dizkigun bezela, neke ta naigabeak ere, eroapenez aritu ezkerok, ekaniko dizkigute atsegin ta zorion ugariak.

(1) Pinpirin=Capullo.



IX

AZABURUA

BITOR ta Patxi langileak baratza eder baten aurretik zijoazela gelditu ziran azaburu ikaragari batzuek ikusiaz. Bitor zinezkoa zan, Patxi beriz guztizko arotputza.

—¡Izugariak ditut — zion Bitor'ek — ez diat inoiz ikusi andiyagorik.

—¡Bai zera! Ori ez dek ezer — erantzun zion Patxik — Amerika-aldean badituk askozaz andiyagoak ere. Nik bein ikusi diat aurreko bereteretxe ori baña azaburu aundiazo.

Bitor'ek, perzkilea (1) zanez, esan zion beriala:

—¡Gogoñtxua dek ori! Bañan nik ere esan beaŕ diat entzuteko bat. Orain amaŕ urte inguru lagundu niokan nere nagusiari bereteŕ-etxe ondoan arkitzen dan eleiza baña pertz (2) aundi-yago bat egiten.

—Bañan gizona — jardetsi zion Patxik — ¿zertarako ukan pertz izugaŕi ori?

—Ba, ire azaburua egosteko.

Bitor'en erantzuer a egokiak naskatu zuen Patxi, ta apal-apalki bere ekandu gaizkoŕa eza-gutuaz, onela zion Bitor'i:

—Ulertzen diat ire gogokizuna. Bazekiat ondo igandik uruti ibiltzen dala gezuŕa, ta gauŕ egi-bidez itz-egin ez badek, nere irigaŕiz izan dek. Ongi egin dek —. Etzaitak aztuko nere zentza-pidez gauŕ erakutsi didakan esakun au:

Gezuffiari gezuf f'erdi

(1) Perzkile = Calderero.

(2) Pertz = Caldero.



X

ARBIA

NEKAZARI apal batek atera zuen bere baratzaik arbi ikaragari bat. Eri artan etzan iñoiz ikusi aundiyagorik.

—Endore alkate jaunari eskeiniiko diot — esan zuen nekazari'ak —. Lugintzalea da ta atsegiñez artuko du.

Eraman zion bada; ta endoreak guztizko abegi ona egin zion, bere atsegiña erakutziar; ta nekazariaren lugintzaldezko areta goraldtu ondoren eman zion amaseiko (1) bat.

Nakazariaren auzoan lugin aberats eta zeken bat bizi zan. Jakin zuen onek nekazariari endoreak nola saritu zion arbi eskeintza, ta bekaltzez beterik onela zion bere artean:

—Bader nik ere txal gazte eder bat. Endore

(1) Amaseiko = Onza de oro.

jaunari eramango diot eskeintzat, eta arbi zakar bategatik amaseiko bat eman badu ¿zenbat emango ote dizka neri txal bat eskeiñi ezkeror?

Jetxi zan bada abeltzegira; eldu zion txalari, ta eraman zion endoreari.

Bañan endoreak zakenaren asmoak uleřtuaz uko-egin (1) zion.

Etzan ořegatik aberats-zekena atzeratu, ta ari t'ari jafaitu zuen bere opariya eskeintzen.

Gogaitu zan endore jauna zekenaren jardun-ketaz, eta esan zion:

—Tira ba: ainbeste alegintzen zeran ezkeror, utzi zazu txal ori. Eskartzen zaitut, eta ain oparotsu nerekin ageřtu zeralako, ni ere ez naiz zurekin gutxiago izango. Ořela bada, zure txal-saneuřiya bañon askozaz geyago ordaindutako opariya eman bearř dizut.

Eta beriala eskeiñi zion nekazariaren arbi aundiya, lotsariz ta labořiz (2) aberats-zekena utzirik.

Uřkoari bekaitzez (3) begiratzen dionak
Izango ditu beregain neke ta miřak.

(1) Uko-egin = Rehuser.

(2) Laboři = Estupefacto.

(3) Bekaitz = Envidia.



XI

PAGO ZABALA

ERAMUN ta Mañtin aurkeztu (1) ziran egun baten auzitegian (2).

Eramunek esan zion epaileari:

—Iru urte dira bidaldi bat egin-beaſian arkitu nintzala. Bidean jaſi baño len eman nion Martin'i, adizkide zintzoa zalako ustez, urte ta diztaſizko eraztun domutsu (baliotsu) bat, nere bidaldi bitarteaz gorde zezan. Ta orain, ziñez (3) biurſu beaſian, ukatu egiten diſ.

—Martin'ek, bere eskua biotz-gain jaſiaz, erantzun zuen:

—Zin-ziñez dizutet nik ez detala ikusi ere eraztun ori. Eramun'i burutik egin zayo noski.

(1) Aurkeztu = Comparecer.

(2) Auzitegi = Juzgado.

(3) Ziñez = Fielmente.

—Eramun — galdetu zion epaileak —: ¿bai aldezu ziñespiderik eraztuna Martin'i eman ziniola bayeztutzeko?

—Zorigaitzez — erantzun zion Eramun'ek — eraztun ori Martin'i eskuratu nionian etzan arkitzen inguru artan beste ikuslerik ibai-ondoko pago zabala baizik. Bere itzalpean agurtu giñan.

Eramun'ek dion zugaitzaz ere eraztuntzaz bezela arkitzen naiz — jardetsi zuon Martin'ek —. Ez dakit non dagon ere.

—Eramun — jaraitu zuen epaileak —; zoaz beriala, ta ekañi zadazu zugaitz oren adar bat. Eta zu, Martin, geldi emen Eramun biurtu arte.

Joan zan Eramun, ta geroxiago esan zuen epaileak:

—¿Noraño joan ote da ori? Etoñi beař zuen oraingo nonbaiten gelditu ezik. Iriki zazu leyo ori, Martin, ia datoren.

—Bañan epaile jauna — erantzun zion Martin'ek — ¿nola nai dezu ain laster etoñtzea, zugaitz ori uruti arkitzen baita?

Jeiki zan bat-baŕean epailea, ta kementsu onela itz egin zion Martin'i:

—¡O! gizon gaizto ta maltzura. ¡Gizaki guzien biotz-bařenak ezagutzen dituan Jauna'ren auren gezuraz zin-egin! Zugaitza non dagon dakienak izango du eraztunaren beñi.

Martin, ikaraka ta lañiturik, itz-egiteko ere etzala gelditu zan. Beraz, eraztuna nork zuen jakiteko etzan beste agerñbide beañik izan; eta

epaileak gaitzetsi (1) zuen eraztuna itzuli ta urte
bete espetxean igarotzera.

Naiz lufpean naiz itxas-ondoan
Zure ogena estali,
Ageftuko da egunen baten
Zure gaizkin-salatari (2).

(1) Gaitzetsi = Condenar.

(2) Salatari = Acusador.

THE 1st of March 1841, at 10 o'clock, the
Steamer "Herald" left New York for
London, via Liverpool.

The "Herald" is a fine ship, and
will be a comfortable voyage. The
passage will be about 10 days, and
the fare is very reasonable.

The "Herald" is a fine ship, and
will be a comfortable voyage. The
passage will be about 10 days, and
the fare is very reasonable.

The "Herald" is a fine ship, and
will be a comfortable voyage. The
passage will be about 10 days, and
the fare is very reasonable.

The "Herald" is a fine ship, and
will be a comfortable voyage. The
passage will be about 10 days, and
the fare is very reasonable.

The "Herald" is a fine ship, and
will be a comfortable voyage. The
passage will be about 10 days, and
the fare is very reasonable.

The "Herald" is a fine ship, and
will be a comfortable voyage. The
passage will be about 10 days, and
the fare is very reasonable.

The "Herald" is a fine ship, and
will be a comfortable voyage. The
passage will be about 10 days, and
the fare is very reasonable.

The "Herald" is a fine ship, and
will be a comfortable voyage. The
passage will be about 10 days, and
the fare is very reasonable.



XII

LEOIA TA SAGUA

SAGU txiki batek igo zuen lotan zegoen leoiaren bizkar gañera. Esnatu zan leoia, ta arapatu zuen sagutxo atzapañ artean. Sagu gaxuak garaizika onela otoitzen zion leoiari:

—¡Asketsi (1) jauna! Utzi bizirik, aŕen, ordainduko dizut-eta!

—¡Ze ordain eman lezake sagu gaxu onek?
—zion leoiak bere aŕtean, ezetsirik (2) saguaren

(1) Asketsi=baŕkatu.

(2) Ezetsi=despreciar.

laguntza. Bañan, erukitu zan, ta utzi zion pakean.

Geroago, eizari batek arapatu zuen leoi ori zareaz, ta indartsua izan aŕen gelditu sare-ar-tean buru ta ankak loturik, zirkinik ere egiteko etzala.

Ikaragarizko sumintasunez asi zan oŕoaka. Sagu txikia, oŕoia entzun ta beriala, atera zan zulotik eta joan zan leoigana.

—¿Zer dezu leoi jauna?—galdetu zion zaguak.

—¿Zer detan? ¡Aŕayo-pola! ¡Aŕapatzen badiat anka-biko ori!—erantzun zion oŕoi aundi bat egiñaz..


—Ez estutu, nik azkatuko zaitut-eta.

—¡Bai, zera egingo deki!

—Egon geldi-esan, da eldu zion sagutxoak bere oŕtz zoŕotzakin sareari, ta lokaŕiak ebakiaz azkatu zuen leoia.

Oŕela erakutsi zion saguak leoiari, aundi ta indartsua izan aŕen ez dala ezetsi beaŕ txiki ta argalak baitu (1) lezaken laguntza.

(1) Baitu=Preŕar.



XIII

BASERITARA TA DEABRUA

ZEGAMA alde'ko basetxe baten bizi zan gizon aipatu bat. ¡Baseritar eñe ta azkara benetan! Askok dira bere egitsariak. (1) Ona emen bat.

Lugintzan aratsalde bateko zeregiñak bete ondoren abiatu zan etxerantz: bañan, bat-batean agertu zitzaion soro-erdian ikatz-bizizko metatxo bat, eta metatxoaren gañean, patxadan eserita, txerén (deabru) txiki ta beltz bat. Aritu zan zega-matara.—¡Zer dek ori! ¡Txerena txingar gañean! Ikusi bear degu ba, zer dion.—Ta bildur gabe ureraturik, onela dio:

(1) Egitsari=Hazafia.

—¡Eup! ¿Bagaude?

—Bai, ta ederki egon ere ogasun-gañean eserita-erantzuten dio txerrenak.

—¿Altxor (1) domutsu'ren (2) bat izango dek xingar-melatxo ori, noski?

—¡Domutsua! Baita benetan. Ik inoiz ikusi ditukan ure ta zilar guziak bañon ogasun geiago dik txingar-meta onek.

—¡Balitekek!... Ba, altxor ori nerea dek, netre soroan arkitzen dalako.

—Irea izango dek soro ontako luraren bi urteko etekin (3) erdija ematen badirak.

—¿Ogasun beñian arkitzen al-aiz beraz?

—Ez: bazeukat dirua ugari, bañan lur-emaitza atsegin zaidak.

Ixil-alditxo bat izan zuen baseñitarak: eta bu-ruan atz egin ondoren onela erantzun zion txerrena'ri:

—Ondo zio: bañan, lur-etekiña banatu beñ degunian asañerik izan ez dezagun, orantxe-beñtan egingo diagu banaketa: lretzat lur-gañean arkitzen dana, ta neretzat lurpekoa.

Ontzat arñu zuen txerrenak baseñitara'ren erabakia, ta joan zan etekin-garai arte agurñuaz.

Baseñitarak, poliki oldoztu ondoren, erein zituan zainoriyak (4).

(1) Altxor=Tesoro.

(2) Domutsu=Valioso.

(3) Etekin=Producto.

(4) Zainori=Zanahoria.

Eldu zan izendatuko garaia, ta ageitu zitza-yon baseñitarari txeren beltza, ta esan zion:

—Tira, ¿non dira nere urte ontako etekiñak?

—Ora or, soro guzia bet-betia—erantzun zion baseñitarak besoak zabalduaz.

Bañon txerenak etzuen arkitu lur-gañean ori orizka ta simelak baizik: ta baseñitarak poz t'atseginez atera zituan lurpetik zainori guri-guriak.

—Zori ona izan det aurien—esan zion txerenak—baña ez det izango beriz. Datoren urtean lur-gañekoak izango dituk iretzat, eta lurpekoak neretzat.

—Ondo zio!—erantzun zion baseñitarak.

—Bañan, txarena joan zanian, zainori orde z gariya erein zuen. Eta biltzeko garaya eldu zanian ebaki ondo-ondotik eta eraman zituan etxera galburu ta lasto guziak.

Ageitu zan txarena, bere lur-etekiña eramateko ustez, bañan etzuen arkitu zoroan ezertxo ere sustraiak baizik, eta asaretu ta minindurik bota zuen bere burua aitz-tontor batetik bera.

Baseñitarak pare-egiñaz onela zion;

—¡A ze iruzurá eraman duen! Ori egin bea zaie azeri maltzur oiei.

Ze lasai ta zoritsu beragandu zuen txerenak utzitako altxoá.



XIV

TXORIAK TXAPELPEAN

MIKEL basetxe eder bateko seme-nagusia zan: lelotxua bera. Egun baten, kabi bateko txori gaztetxoak arapatu zituen. Non eraman etzekiela, txapelean sartu zituan, ta txapela txori ta guzti, buruan. ¡Izango zuen gili-gilia buru aldian!

Etixerontz zijoala ezezagun batek, gurka bat egiñaz, esan zion:

—Adi zazu adizkide: ¿norakoa da bide au?

—Bañan Mikel'ek txoriak zeuzkan ginelian, (sombreroan) ta agufari erantzuteko gimbela kendu bear, ta... txoriak iges-egiteko bidean jari

baño len, oldoztu zuen bere artean:—¿Nik zer zeukat ze-ikusi ezezagun onetzaz?—ta jaramonik egin gabe jaraitu zion bideari.

Ezezagunak afiturik, onela zion:—¡Au zakañ-keria! ¡begiratu ere ez! ¿Basatiak ote dira emengo giza-semeak?—eta geyago gabe utsi zion Mikel'i.

Geroxiago, endore jaunaren ondotik igaro zan Mikel. Efitar guziak zuten endore jauna agufu beara: bañan Mikel'ek, ginbelian txoriak zitualako edo zakaña zalako, etzion agurik egin. Endore jaunak esan zion bere ondoren zetorren otseñari:

—Mutil ofek ginbela buruari iratzita al-zeukak?

Joan zan otseñia beriala Mikel'gana, ta esan zion:

—Aizak Mikel: Endore jaunak ginbelpian zer daukan jakitea nai dik, eta kendu zak beriala.

—Etzeukat ezer, mutil... ileak bakañik-zion Mikele'k; eta etzuen ginbela erantzi nai.

Bañan otseñiak etzeukan beñiketako gogorik; eta ¡zapla! jo ta bota zion luñera ginbeloi. ¡Aura zan ikustekoa! ¡Txoriak, paña-paña, pozkidaz egazka!; Mikel asare ta puñustaka: Endore, otsein ta inguruko guziak iriz ta parezka!

Andik aurera «Mikel txori» deitzen zioten Mikel: ta agur egiten etzutenentzat esakun soñtu zan:

«Ofek txoriak ditu ginbelpian noski».



XV

SAGU ERNEAK

SAGU gaxoentzat katua izan da beti etsairik gaiztoena. Gogaitu ziran katuaren eguneroko lafaiketa ikusiaz, eta bildu ziran guziak beti itxita arkitzen zan gela baten batzar bat egiteko. Beñoge-gei ta zortzi aldiz katuaren atzapañ-arretetik igez egindako sagu maltzuñ bat autetsi zuten batzar-buru: «Gaztaki» zan bere izena. Nai zuten guziak ixandaka itz-egin ondoren, jeiki zan Gaztaki, ta onela itz egin zuen:—Nere anai ta lagunak: Itz geyegi egiten dezute. Guri dagokiguna da alpefikako beriketari utzi ta erabaki zuzenak artu.

—(¡Ori dek, Gaztakil!—zioten guziak)—Bai: zuek bañon obeteago ezagutzen dizkiat katuaren gogokizun gaiztoak. Gaur goizean befogei ta zortzigarren aldiz arkitu nauk gure etsaiaren atzapar artean; ta ez nukek nai beriz arizko ortan nere burua ikusterik. Ofetarako, astiro oldoztu ondoren, asmatu diat bide zuzen ta egoki-egoki bat. —(Guziak txaloka: ¡Gora Gaztakil!)—Bide egoki ori dek, katuari lepotik zintzilik txilin (1) bat jaritzea. Ofela somatuko diagu ureratu baño len, eta izango diagu zuloan garaiz sartzeko astiya. — ¡Ori, ori! ¡Bejon deikela! — zioten guziek.

Ekari zituzten txilin zoli bat eta lokari polit bat. Guziak agertzen zuten beren alaitasun ta pozkida. Bat bakarrik, zaritxo bera, arkitzen zan oldozkoñ. Jeiki zan oldozketa ondoren, eta galdetu zuen benaz.

—¿Nor izango da katuari txilina jariko diona?

Guziak ixildu ziran bat-batian.

Gaztaki batzarburuak ere galdetu zuen:

—¡Ez al-du inork azarkuntzarik?

Etzuen inork erantzuten.

—¿Katua lo arkitzen dan bitartean ere ez?— galdetu zuen beriz.

Bańan berdin; guziak, zar ta gazteak, ixil-ixilik arkitzen ziran.

Asaretu zan Gaztaki, ta jaraitu zuen esanaz:

(1) Txilin=Campanilla.

—Ba, alperik bildu gera. Zoazte emendik, katuaren erpekada goxuak ezagutzera.

Ta banaka-banaka, apal-apal ta atsekabez, joan ziran sagu gaxoak bakoitza bere zulora; eta of dabilta bazterik-bazter ankajokuka, katuaren ingurutik itzurka.



XVI

TXOMIN GEZURTI

IGANDE aiatzalde batean atera zan Txomin bere aitakin ibilketatxo bat egitera. Guztizko gezurtia zan Txomin ori. Bidean zijoazela, esan zion aitari:

—Aita: Legezar-zeyan ikusi nuen atzo izugarizko txakur bat: ba-zan gutxienez gure zaldi zuria bezin aundiya.

—Ago ixilik — erantzun zion aitak — orela gezurik esan gabe.

—Baietz: zuk ez dezu siniztuko, bañan egi-egiya da: ondo begiratu nion.

—Aritzekua dek.

—Idi batek bañan indar geiago omen du.

—Kaiberi'ko zubia igarotzen degunean ja-kingo diat egia dan edo ez.

—¿Zer ba?

—Ara: Gezur aunditxoak esaten dutenak zubi ori igarotzean ari bat jo ta eroriaz edo besoa edo iztafa autsita gelditzen ditut.

—¿Benetan? ¡Ene! — lkaratu zan Txomin, ta onela zion aitari:

—Itxoin puxka bat, aita. ¿Nola esan dizut len? .. Orain gogoratzen naiz ondo. Etzan izango gure zaldia bezin aundia: bañan, bai astoa bañan zerbait aunditxoagoa.

—Baliteket. Laister gaituk zubian-erantzun zion aitak.

Txomin, zubiari begiratuaz, geroago ta geryago estutzen zan; ta esan zion aitari:

—Aita: atzo ikusi nuen txakur ori izango zan ba txal txiki baten esterikoa (1).

—Bai: gutxienez. Emen dek zubia: gaizki bea dek oraintxen, Txomin — esanda bazijoan aita añera.

Bañan, Txomin'ek, estutasun lañiak arturik, eldu zion jaketik, esanaz:

—Aita, aita, gelditu aña! Geiegizka esan det. Atzoko txakur ori, beste txakur batzuek bezelakua zan.

(1) Esteri = Tamaño.



XVII

BASERITAÑA TA TXIMINOAK

JOAN zan egun baten baseritañ bat aberats baten jauregira, otaña bat bete madari eramatera.

Jauregi-atarian arkitzen ziran tximino bi, apain ta poliki jantziak, beren ginbel (sombbrero) ta guzti: neska-mutiltxo bi ziru ditzen. Somatu zuten beriala madari-ufin (1) goxo-goxua, ta eldu zioten alde bitatik otañari *sakela* madariz betetzeko pozez. Baseritaña txapela itzalez kenduta egon zan tximinoak madariz asebate egin arte. Ondoren, eraman zion otaña nagusi jauna'ri.

(1) Ufin = Aroma.

Onek, otaña erdi-utzik ikusirik, galdetu zion baseritarari:

—¿Zergatik ez dezu ekañi geyago?

—Jauna — erantzun zion baseritara — betebetia ekañi det; bañan zure seme-alabatxoak jan dituzte geyenak.


—¿Nere seme-alabak?

—Bai jauna: ta ¡gogoz jan ere! Ni pozez nengoen beren jan-beaña ikusiaz,

—¡Bañan nik ez ba det seme-alaba txikirik!

—Ba... atarian gelditu dira.

—¡A!... orain gogoratzen naiz: ¡Tximinoak!



XVIII

ARTZAI BATEN BETAUŔEKOAK (1)

IGANDERO eleizara joaten zan artzain batek oartu zuen efiko irakaslea betauŕekoak iñoiz kendu gabe ibiltzen zalata, benaz oldoztu ondoren, onela zion:

—Ez det ezbairik: Irakasle ori betauŕekoak dituelako izango da efi ontako irakurlerik azkar-ena.

Ta besterik gabe, erabaki zuen berak ere erostea.

Joan zan bada egun baten Donostira. Bakar-bakarrik kalerik-kale, jo ofera ta jo onera, luzaro ibili ondoren, jo zuan noizbaitian betauŕekoak saltzen ziran denda baten.

Gelditu zan ate ondoan, eta deitu zuen indartsu:

(1) Betaufekoak=Los lentes.

— ¡Eup! ¿Emen saltzen al-dira betaurékoak?

— Bai gizona: atoz aurera—erantzun zioten—
Ona emen ugari ta merke.

— Merke nai garesti: bein oneraño ezkerro ez
naiz itzuliko erosi gabe.

— Ona emen izparingia, ta ikusi zazu zeñe-
kin irakurtzen dezun obeto.

Jari zuan bat, ta izparingiari goitik-bera be-
giratu ondora, onela zion:

— Ez det batere irakurtzen.

— ¡Ikuspide laburá al-dezu?

— ¡Laburá! Ez jauna, ez. Nik Aitzgoñi'ko
muturitik zenbatzen (1) ditut Eñnion arkitzen
diran ardiak.

— Tira ba onekin.

Jari zuan beste bat, onen ondoren beste bat;
ta oñela bana-banaka ikustatu zituen mota gu-
zietako betaurékoak, leyañak (2) ondo garbituaz;
bañan alperik, ezin zuen irakuri.

Gogait egin zuen dendariak, ta galdefu zion
artzaiñari:

— ¿Zuk ba-dakizu gero irakurtzen?

— ¡Alajaña! ¡Irakurtzan baneki ez nuke be-
tauréko bearik!

(1) Zenbatu=Contar.

(2) Leyer=Kristel.



XIX

¿TXAKURÁ ALA TXERÍA?

ALTZA'ko Killimon kirten Donosti'ra txerí eder bat eraman bearian arkitzen zan. Bañan, *Santa Katalina*-zubia igarotzeko zérğa (1) gogorítxua ordaindu bear; ta ofek min aundia ematen zion. Etzuen lorik egin gau artan: Zérğa ordaindu gabe Donostira nola sartuko ote zuen oldozketan igaro zuen gau guzia. Asmatu zuen azkenerrako, ta edefki asmatu ere.

Lenbizi il zuen txería. Gero, eldu zion etxeko zakurari, ta zoño baten sartuaz, badijoa gure Killimon zakura bizkaréan duela.

Iritxi zan zergetxe (2) aufera, ta zérgari (3) batek galdetu zion:

—¡Zer daramazu zoño orían?

(1) Zerga=impuesto.

(2) Zergetxe=Pielato.

(3) Zérgari=Cobrador de impuesto.

—Etxeko zakura.

—¿Zakura e? ta arategira (1) beraz? ¡Nik emango dizut zuri!

—¿Zakura dala, gizona! Jauregi bateko baratza zaintzeko daramat.

—Ez diguzu sartuko ziri ori. Tira, tira, sabaldu zoroa beriala.

Zabaldu zuen Kilimonek, eta zalapañtaka atera zan sakura ta laistefka iges egin zuen bere etxerontz.

Asare aundia irudikatuaz, onela zion Kilomen'ek zergariari:

—¿Zakura ala txeria izan da? Sinistuko al-dezu orain? ¡Zuek bezelako gezurñiak gerala uste dezute? ¡Arale pola!... ¡Zuaz orain zakura beriz arapatu ta ekartzera!

Aundiak esan ondoren, joan zan Kilimon bere etxera. Iritxi ta beriala zakurari ondo esan ta arto zati bat eman ondoren, sartu zuen zoroan txeria ta bizkar gañean arturik abiatu zan donosti alderantz.

Sergetxera iritxi zanian arpegi ilun ta begirakun zemaikoñ bat zuzenduaz, onela dio:

—¿Nai al-dezute beriz zakura ikusi? ¡Ez litzaizuteke gaizki etoriko bere aginkada bat!

Eta zergariak parez utzita sartu zan Kilimon Donosti'ra lasai ta pozez txeria bizkarean zuela, zergaria'ri iruzur-egiaz.

(1) Arategi=Carniceria.



